





Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abagune egokiera, aukera aproposa	...hala eta guzti, ba omen zeukan artean abortatzeko abagunea , legez kanpoko klinika batzuetan.	91
abegikor atsegina	Harengana berriz hurbildu, batere abegikorra ez zen keinuaz begiratu eta ukabila erakutsi nion.	159
adeitasun begirunea, errespetua	Falta zitzaion nirekin beti erabiltzen zuen aparteko adeitasun puntu hura.	140
adeitsu errespetuzkoa (<i>amable</i>)	Ez zuen hizkera lar adeitsua erabili.	200
ahalik eta arinen albait lasterren, lehenbailehen	...lehentasuna: dirua ahalik eta arinen pilatzea behingoz askatasuna berreskuratu eta bizitza horrekin nahi duena egiteko.	93
ahi orea, krema (<i>papilla</i>)	Olo-morokila prestatzeari eman nion, kazolako ahiari eragiten ari da, baina esnatzerakoan izan duen sentipen ezkorrak berdin dirau...	45
aizkoratzar aizkora handia	...ni neu, gona gorri huts batez jantzita eta aizkoratzar bati gogor oraturik giharrak hobeto markatzeko...	9
akordura ekarri gogoratu	Akordura ekarri behar izan nuen bezeroa beti pozik utzi behar dela...	48
aldarte umorea, jarrera	...gau hartan Xihabek ez zuen hortik jo, agian nire aldarte zelakoa zen antzemanda.	34
aldentzekoa egin urruntzeko keinua	Arlotea tentuz zutitu zen, ezbaian legez gugandik aldentzekoa egin zuen eta, eragozten ez geniola jabetuta, [...] korrika urrundu zen baldarkeriaz.	160
aldikada denboraldia, garaia	... aldikada baten lehorteak egon ziren, uzta negargarriak suertatu zitzaizkien...	44
aldikako noizbehinkakoa	Aldikako parrandakidea ere bazen, eta lantxoren baten berri zeukanean berehala abisatzen ninduen...	28
amore eman etsi, desesperatu	Ez nuen amore eman nahi eta, gizon haren zintzotasunaz mesfidati, proba bat egitea erabaki nuen...	196
antsiatsu irrikaz, gogo biziz	Ia ordubete pasatua zen deitu nionetik eta antsiatsu itxaroten nuen haren deia.	34
apeta kapritxo	Ni neu estu eta larri ibili nintzen Sira babesteko bidean topatzen genituen gizon boteretsuen apetetatik .	49
arakatu miatu, ikertu	Hormak haztatu nituen ate faltsuren bat salatu zezakeen zirrikituren baten bila, behegaina ere modu bertsuan arakatu nuen.	203
arrote zarpaila, trauskila, eskekoa	Arlote batek zeukan.	152
arroila zanga, lubakia	...Afrika Txikia Bilbo Zuritik banatzen duen arroila sakon eta zikinaren hondora...	156
artatxiki artoa	...ez du artatxiki hori eho behar eskuak hondatuta amaitu arte, ez du basora joan behar, aizkora eskuan, egurra batzera...	87
artean oraindik ere (leh)	...hala eta guzti, ba omen zeukan artean abortatzeko abagunea , legez kanpoko klinika batzuetan.	91
artega urduri, kezkati	—Ez dakit nik, artega ikusten zaitut, burua beste nonbait edukiko bazenu bezala.	58
ataska uhatea, konporta	Hauek denak ataska sendoez itxita zeuden eta, ziurrenik, itsasgorarekin guztiz estalita geratuko ziren.	161
atoan berhala	Erosleak billete bat pasatu zion ezkutuan, poltsa jaso eta atoan desagertu zen atariaren barruan.	81
atsekabez disgustatuta	Atsekabez itzuli nintzen ertzainak eta Osman zeuden tokira.	19
babo papaua, tentela	...ardura handirik gabe begiratzen zidaten, esnifatutako kolak jartzen dien babo aurpegi horrekin.	37




baldarkeria trakets, dorpe	Arlotea tentuz zutitu zen, ezbaian legez gugandik aldentzekoa egin zuen eta, eragozten ez geniola jabetuta, [...] korrika urrundu zen baldarkeriaz .	160
baliatu jokatu, aprobetxatu	Baina ez nuen ulertzen zelan baliatu behar genuen abagune hartaz: zer egin behar nuen, nik bakarrik jo balizko laguntzaile haiengana [...]?	173
balizko ustezkoa, hipotetikoa	Baina ez nuen ulertzen zelan baliatu behar genuen abagune hartaz: zer egin behar nuen, nik bakarrik jo balizko laguntzaile haiengana [...]?	173
barra-barra neurri gabe, ugari	Lokalak gainezka egoten ziren, dirua barra-barra gastatzen zen, eta hor ibiltzen ginen Osman eta biok ere, dantza eta trago artean pozarren.	185
barrundatu hauteman, sumatu, nabaritu	...eremu bakarti eta ilun hura ere arakatzeari eman genion, tren bat hurbiltzen ari zela barruntatuz .	161
begitandu iruditu	Denbora astiroegi zihoan aurrera, baina zerbait jakiteko nahikoa pasatu zela begitandu zitzaidan.	36
begiz jo antzeman, begiztatu	...hainbat buelta eman behar izan genituen, Bilbi hotelaren ondoko kale estuan tartetxo bat begiz jo arte...	30
begiztatu ikusmiratu, gainbegiratu	...irekita dauzkate jada salmenta-postuak, eta oinezko batzuk liburuak begizatzen ari dira.	8
behingoz halako batean, azkenean	Minutu luzeegi haien ondoren, behingoz , oihala azken aldiz jaitsi zen...	12
beitu hara, begiratu	Beitu , nik ere badakit magia egiten.	64
berrekin insistitu	—Meskitaz gain Berebarren ere bai? — berrekin nion—. Beste leku batzuetan?	124
beste horrenbeste egin berdin, gauza bera	Nik beste horrenbeste egin nuen, eta hala jarraitu genuen tarte luze baten, hesiak gaituz...	220
betizoriontsu jarrera alai amaigabea	—Ez arduratu —erantzun zidan betizoriontsu itxurako beltzaran potolatxoak—, minutu batzuk baino ez dira.	56
birao araoa, maldizioa	Birao txiki bat ere ez zuen bota maliarrak.	23
borrero kondenatuak hiltzen dituen	...belzkote baten beharrean baitzeuden borreroarena egiteko.	10
burutazio pentsamendu bitxia	...ezin izan du du burutazio gaizto bat saihestu eta horrek hotzikara bat sentiarazi dio.	104
debalde doan, dohainik	Han egongo naiz, ziur, eta debalde egingo diet sinadura.	18
deiadar garrasia, heigora, txilioa	...nahasmen zalapartatsua sortu da ferian; deiadarrak aditzen dira, korrikaldiak daude, presakako telefono deiak...	8
deliberatu erabaki	Ezetz deliberatu nuen.	146
denen estimukoa denek apreziatua	On hutsa zen, denen estimukoa , baina aldi berean lar eragingarria norbaitek berataz aprobetxatu nahi zuenean.	33
derrigorra ezinbestekoa, nahitaezkoa	...Luperi bisitatxo bat egitea derrigorra da, bestela haserretu egingo zait.	183
desenkusatu zuritu, ezina adierazi	Gizonezkoa mintzatu zen orduan, desenkusatze tonuaz.	228
deus ez ezer ez, tutik ez	Ez zuen deus erantzun.	124
divozale jarraitzailea, fana	Saio guztien amaieran bezala, hainbat divozale hurbiltzen ari ziren ate hartarantz, kantarien autografoak [...] sikan, lortzeko esperantzaz, ...	13
eho birrindu, kolpeka xehetu	...ez du artatxiki hori eho behar eskuak hondatuta amaitu arte, ez du basora joan behar, aizkora eskuan, egurra batzera...	87




enparauak gainerakoak, besteak	Maria, Ana, Elena eta enparauak errespetatzen duten emakumeak dira...	89
erabakitsu ziurtasunez, jarrera irmoaz	Bostekoa eman nion eta abiatu egin nintzen, erabakitsu .	145
eragotzi galarazi, oztopatu	Arlotea tentuz zutitu zen, ezbaian legez gugandik aldentzekoa egin zuen eta, eragozten ez geniola jabetuta, [...] korrika urrundu zen baldarkeriaz.	160
erakusteke erakutsi gabe	...batere kezka zantzurik erakusteke [...], musika aparatua piztu eta bere herrikide Issa Bagayogoren ahotsa entzuten hasi zen.	175
erantsi gaineratu	—Non eskatu behar da txanda? — erantsi zuen burusoilak, potro-jotzea biribiltzeko.	70
errekasto ur latsa	Ondo izorratuta geunden biok, nik ere gorputz osoa neukan minduta eta odol errekastoak sentitzen nituen atzamar puntetatik lurrera isurtzen.	224
errieta egin agiraka egin, bronka bota	...eta errieta txikia egin diote gauza horiek lehenago ez kontatzeagatik.	164
eskukadatxo kolpetxo	—Gutzizko egia — Eskukadatxo pare bat eman zidan sorbaldan—.	189
esnifatu sudurretik xurgatu drogaren bat	...ardura handirik gabe begiratzen zidaten, esnifatutako kolak jartzen dien babo aurpegi horrekin.	37
estualdi ataka txarra	Askotan lagundu zidan, bere esperientziaz eta jakituriaz baliaturik, antzeko estualdietatik ateratzen, ez geneukan sekretu handirik elkarrekin...	28
ezbaian dudan, zalantzan	...ez geneukan sekretu handirik elkarrekin eta ezbaian ibili barik eman nion poliziak egindako proposamenaren berri.	28
ezean ez edukita, ez izanda	Mutil koskorrak dira oraindik eta gaur, eskolarik ezean , lo daude.	44
ezgauza inutila	"Beltz putakume ezgauza hori!" bota zidan, gorrotozko begirada batez...	12
frustrazio nahigabea lortu ezinagatik	Hori dela eta, Sa Keneren hurrengo hitzek frustrazio txikia sentiarazi zidaten...	154
gainez eginda neurria gaindituta, itota	Ikertzaile sartutako emakumea gainez eginda sentitzen da jasotako informazioarekin...	77
galanta katxarroa, oso erakargarria	—Zer ematen dizuete afrikarrei horren galantak izateko? —bota zuen andreak...	183
gomuta oroitzapena	...lehenengoz ikusi nuen bezala, ezin izan nuen ekidin nire alabaren gomuta .	128
gortina errezela	Hortxe da —esan zuen, eta kristalezko sarrera zeukan lonja haietako bat seinalatu zidan, gortina ilun batez hornituta zegoena.	204
gosekilik goseka amorratzen	Tabernariak, agian, gosekilik nengoela interpretatu zuen...	36
grina pasioa	Arrazoi zuen Iratxek athleticzaleen grinari zegoekionez.	116
gupida errukia	Nazka eman zidan gupida eskari haren beharra izateak, baina une hartan umiliatu beste aukerarik ez neukan.	147
gutxi izanean ere izanez gero, balitz ere	Eta, hori dena gutxi izanean ere , dena amaitzear zegoela zirudienean...	12
hainbatgarrenez enegarrenez, milagarrenez	Erlojuari so egin nion hainbatgarrenez .	18
halabeharrez nahitaez, ezinbestean	Itxaroten ohituta dago, halabeharrez , eta horrelaxe jarraitu beharko du.	88
halandaze beraz, horrela ba	...bagenekien zer egin behar zen martxan jartzeko, halandaze Osman bolantearen aurrean gelditu eta ni autoaren atzean kokatu nintzen.	24




har zizare	...makina bat har nire sabela eten gabe zulatzen ari balira bezala.	152
hasperen egin arnasbehera, putz egitearen gisa	— Umea ondo dagoela diote —arriskatu nintzen eta neskak hasperen egin zuen, gogoia arindurik bezala.	50
hausnartu gogoetatu	...ezin izan nuen saihestu nire egoeraz hausnartzea ...	9
hazpegi aurpegiaren eitea (<i>rasgo</i>)	Gazterik hasi zen umeak egiten, honezkero bost aldiz erditu da, [...] baina emakume polita da, hazpegi finekoa, peul etniaren ospeari dagokionez.	43
haztatu hatzekin ukituz bilatzea	Hormak haztatu nituen ate faltsuren bat salatu zezakeen zirrikituren baten bila, behegaina ere modu bertsuan arakatu nuen.	203
herdoildua ugertua, oxidatua	Gero niganaino hurbildu zen, armaren punta herdoildua nire masailean ezarri eta berriz egin zuen berba.	223
hesi itxitura	...hala jarraitu genuen tarte luze baten, hesiak gaindituz, baratzak zapalduz, putzu eta errekaak saltatuz, sastraketako arantzen ziztadak sentituz...	221
hogeita hamataka hogeita hamar eta piku	Hogeita hamataka urte izango zituen Xihabek, nik baino gutxiago.	35
hondagarri suntsitzailea	Hitz horiek eragin hondagarria izan zuten nigan...	160
honezkero ja, jadanik	Gazterik hasi zen umeak egiten, honezkero bost aldiz erdi da, gorputzaren liraintasuna galdu du pixka bat, baina emakume polita da, hazpegi finekoa...	43
hurreratu hurbildu	Nigeriarra hurreratu egin zitzaidan alfonbra gainetik irristatuz...	130
ihitza ihidoia (<i>juncal</i>) hezegun belarki	...ur ertzean hazitako ihitza bat miatu genuen, alferrik...	161
iman apaiz musulmana	— Ez zenuke gauza handirik egin beharko. Besterik gabe, otoitzaldietara joan, imanari entzun, jendearekin egon ...	21
imintzio keinua	Kabroiak ez zuen ezta laguntzeko imintziorik ere egin eta ziztu bizian desagertu zen, badaezpada, gure begi bistatik.	112
itaun galdera	Baretzen saiatu nintzen, eta onena itaun kontua bere esku uztea zela pentsatu nuen.	158
izain urbuztana (<i>sanguijuela</i>)	...turista-harrapatzailearen bat hurbildu eta, izain bat bezala itsatsita, ostatu ona eta merkea eskaintzen dienean...	216
jabe izan ohartu	...ez dakit horren jabe ba ote izan .	134
joan ahala zihoan heinean	...arratsaldea aurrera joan ahala , ugarituz joan ziren azal-beltzak inguruko jarlekuetan.	134
karranka hegazti batzuen oihu bizi (<i>belea</i>)	Kaioak ageri ziren eta segituan ulertu nuen zergatik entzun nituen haien karrankak Sirari egindako dei hartan.	154
kauri amuletoa, oskol zuria	Neska nigeriar gazte bat neukan aurrez aurre jesarrita etxeko alfonbraren gainean, esku artean eragiten nituen kauriak noiz botako zain.	45
kikildu mekotu, beldurtu	Nazkatuta nengoen haien jarrera larderiatsuarekin, beti kikilduta egon beharrekin, beti txintxo-txintxo men egitearekin...	65
kilikadura asaldura, eszitazioa	Kilikadura sumatu nion ahoskeran, urduritasuna agian...	19
kilikatu harriduraz, kitzikatuta	Ilaran zain dauden eskola-umeek kilikaturik so egiten diote sagu erraldoiari...	7
kinkila askotariko salgai txikiak	Senegaldar kinkila -saltzaileen geletatik ez zen zaratarik ateratzen, eta Osman ere lo zegoen bere ohean.	39
korapilatu endredatu, okerrago jarri	...gogoia izan nuen, zeken harengana itzulita, muturra ukabilkada batez apurtzeko, baina ez zitzaidan komeni gauzak gehiago korapilatzea ...	72




kosmopolita leku askotako pertsonak osatua	...lokal kosmopolita bat badago, horixe da berebar, ze magrebtarrak zein beltzok zein hego-amerikarrak nahiz euskaldunak, denok gustura egoten gara.	68
kurrusku ogi muturra	...barraren kurruskua ahora eraman ondoren, kalean gorantz abiatu nintzen.	125
kutsu aztarna, arrastoa	Burusoilaren musu serioan ez nuen inolako aldaketarik sumatu, baina Etxeberenean halako erruki kutsu bat ikusi nahi izan nuen.	147
lanpas felpudoa	Lehen solairuko pasabidean gizon bat zegoen etzanda, lo seko, aurpegia lanpas baten gainean.	39
larderiatsu mehatxuzkoa, autoritarioa	Nazkatuta nengoen haien jarrera larderiatsuarekin , beti kikilduta egon beharrekin, beti txintxo-txintxo men egitearekin...	65
laudorio gorespina	Jarraian kortesiazko laudorioak etorri ziren.	184
legetxe bezalaxe	...haren elkartasunaz aprobetxatzera, Bilbora ailegatu nintzen garaian legetxe .	11
loki buruaren belarri aurreko gunea	Lehenik eta behin ukabilkada bat eman nion lokian ...	219
luze barik handik lasterrera	Alaba luze barik iritsiko zen geltokira, eta han ikusten ez baninduen...	18
makalaldiak jo ahulezia sentitu	Madarikazio bat bota nuen nirekiko, jo ninduen makalaldiak amorratuta.	129
makarroi harroputza, burgoia	Bizkarra erakutsi eta handik alde egin zuten, poliziek izaten duten ibilera makarroi eta handiuste horrekin.	23
mamorro bitxoa, zomorroa, kokoa	Aurreneko kotxearen atzealdean ume bat zegoen, harriduraz so egiten ziguna, mamorro bi ikusten ari balitz bezala.	218
mamurtu hausnartu, gogoetatu, xehatu	Andrea erantzuna mamurtzen zuen bitartean, gure aurrean autobus bat gelditu, aurreko atea ireki eta gidaria begira geratu zitzaigun.	215
mardul lodia, potoloa	Elkarrizketa hartaz deskonektatu nuen, begirada jaso eta atsegin itzelaz ikusi nuen irudi mardul bat nigana hurbiltzen.	62
markesina geltoki eraikintxo	Beste aterpe egokirik ezean, hurbileko bus-geralekuaren markesina seinalatu nion Osmani eta hara jo genuen babes bila.	212
marmarti maiseatzailea, gaitz-errailea	...hobe nuen kontratatu ninduen liburu-saltzaile marmartiarekin tontakeriatan ez ibiltzea.	58
Martzana kaia Bilboko alde zaharreko ibai-ertz	Gaua da eta Martzana kai bakartiaren ertzean jesarrita nago...	229
mela-mela eginda blai eginda	Mela-mela eginda nengoen beroaren eta tentsioaren eraginez, itogarria egiten zitzaidan polizien kontrol nahi hura...	69
men egin obeditu, esana egin	Nazkatuta nengoen haien jarrera larderiatsuarekin, beti kikilduta egon beharrekin, beti txintxo-txintxo men egitearekin ...	65
mesfidantza errezeloa, susmoa	Mesfidantzaren lekua beldurra hartzen ari zen arlotearengan, eta ez zitzaidan iruditu jarrera hura nire mehatxuaren ondorioa zenik.	159
mintz azaltxo	Kakahueteen mintzez zikindutako hortz-haginak erakutsi zizkidan.	33
morokil ore lodia	Olo- morokila prestatzeari eman nion, kazolako ahiari eragiten ari da, baina esnatzerakoan izan duen sentipen ezkorrak berdin dirau...	45
morrosko mutikotea, mutil-puska	— Ezer zailik ez, zure moduko morrosko batentzat.	59
musu aurpegia	Burusoilaren musu serioan ez nuen inolako aldaketarik sumatu, baina Etxeberenean halako erruki kutsu bat ikusi nahi izan nuen.	147
muzin egin bartzertu, aintzat ez hartu	Hala eta guzti, oharrari muzin eginez , zintaren azpitik pasatu eta nire alabaren gorpuak azken orduak emandako lekuraino joan nintzen.	169



nagiak atera behar bezala itzartu	Goizean kostatu zaio nagiak ateratzea ...	105
narras dorpea, traketsa	Azkenean, nola edo hala, sasidendariak pakete narras bat eginda eman zizkion.	119
nasa geltokietako kaia (<i>andén</i>)	—Eta argazkiko neska jaisten ikusi zenuen, edo norbaitekin hitz egiten, nasan edo?	77
nozitu pairatu, jasan	Auzokoa da jatorriz, sasilapurreta horren antzeko hainbat gertaera nozituak ditu okindegian...	123
ogibide lanbidea, ofizioa	Izan ere, aspaldiko bolada txarrak ez zeukan amaitzeko itxurarik, eta nire ohiko ogibideak zein baino zein eskasago zihozan.	11
ohatila ohetxoa, esku-ohea	Etxe arrunt bateko gela bat ematen zuen, nahiz eta ohatila batez eta beharrezko tresneriaz hornituta egon.	130
olo landare jangarria (<i>avena</i>)	Olo -morokila prestatzeari eman nion, kazolako ahiari eragiten ari da, baina esnatzerakoan izan duen sentipen ezkorrak berdin dirau...	45
on huts bihotz handikoa	On hutsa zen, denen estimukoa, baina aldi berean lar eragingarria norbaitek berataz aprobetxatu nahi zuenean.	33
orban mantxa, marka	...bizkarrean tximeleta itxurako orban bitxi bat zeukala ohartzeko.	92
ostenduta ezkutuan	Ez zen gehiago ageri, ordea, ez gela txikiagorik ez inor ostenduta edukitzeko moduko espaziorik.	201
ostera ibilalditxoa, paseotxoa	Gaur eguerdian bertako kaitik ostera bat egiten ari nintzen, eta parke baten zure alabaren telefonoa zeukan arlote horrekin egin dut topo.	153
ostu lapurtu, ebatsi	...nahi duten guztia ostu dezakete kartzelara joan barik.	83
otiek intsekt matxinsalt antz (<i>langost</i>)	...uzta negargarriak suertatu zitzaizkien, lurrak emandako apurra otiek jan zuten, eta infernuko intsektuen asetzeak herritarren gosea eragin zuen.	44
ozpindu garraztu, amorratu	...kontua da nire aldartea ozpintzen joan zela...	61
paratuta jarrita, ipinita	Ia ni bezain handia zen eta aurrez aurre paratuta hitz egin zidan.	16
patu zoria, halabeharra (<i>destino</i>)	Haurraren patuaren berri izan nuenetik ia gauero ikusten dut amesgaiztoetan maleta hori aireportuko zinta beltzean...	233
pensakor gogoetatsu	Kristinak ez du ezer erantzun, pensakor geratu da...	77
petarda petrala, gogaikarria	...eta sopranoa, Maria Estuardaren rola betetzen zuen petarda jasangaitza.	9
petral gogaikarria, jasangaitza	Andreari zapia ahotik kendu orduko protestaka hasi zen, espero zitekeen umore petralaz .	121
pot egin sats eginda, leher eginda	Ordu batzuen ondoren, pot eginda eta kemenez hustuta, amore eman eta gaua Baionako ostatu baten pasatzea erabaki zuen...	97
potro-jotze adar-jotze mingarria	—Non eskatu behar da txanda? —erantsi zuen burusoilak, potro-jotzea biribiltzeko.	70
pozarren poz-pozik, atsegin handiz	Lokalak gainezka egoten ziren, dirua barra-barra gastatzen zen, eta hor ibiltzen ginen Osman eta biok ere, dantza eta trago artean pozarren .	185
premiatsu presazkoa	"Benga, Toure, benga!" zioen erregidorearen ahots premiatsuak .	11
prometatu agindu, hitzeman	—Gauza bat prometatu behar didazu —erantsi du.	166
purrustada emurruskada, protesta keinua	Ez genuen sartzeko imintziorik egin ez afrikarrok ez gure solaskide berritsuak, eta gidariak, purrustada txiki bat eginda, atea itxi eta aurrerantz jarraitu zuen.	215



puteatu kalte egin	Eta, edonola ere, ez zeukaten beste zereginik ni puteatzeaz aparte?	147
puzka putzaldiak eginez	Andreak [...] hitz egin zuen, langileok puzka errekuaperatzen ginen bitartean...	112
saihestu ekidin	...ezin izan du du burutazio gaizto bat saihestu eta horrek hotzikara bat sentiarazi dio.	104
sargori bero-sapa, bero astuna	Izerditan zegoen, ez nekien sargoriaren ala urduritasunaren ondorioz.	200
sastraka sasitza, landaretza pilaketa	...hala jarraitu genuen tarte luze baten, hesiak gaintuz, baratzak zapalduz, putzu eta errekoastoak saltatuz, sastraketako arantzen ziztadak sentituz...	221
senezko berezkoa, instintuzkoa	...azken orduetan sarriegi errepikatzen nuen senezko keinu batez	85
sikeran behintzat, bederen	...bizkarra R-5eko jarlekuaren kontra deskantsatu nuen. Pixka bat, sikeran , lasaitu nintzen, eta Osmanek igarri egin zidan...	27
sos dirua, txanpona	Kontu hartatik ez nuen sosik atera behar...	129
suertatu atera, gertatu	...aldikada baten lehortek egin ziren, uzta negargarriak suertatu zitzaizkien...	44
tentuz arretaz, kontu handiz	Kristinak tartetxo bat hartu zuen, hurrengo galdera tentuz planteatu nahi eta ezinean.	141
trapitxeo azpikeriako ekimena	...are gutxiago droga kontuengatik, nik ez dut trapitxeorik ikusi.	68
trikimailu azpijokoa, gainua	...ume guztiak hara joan baitziren gizonaren trikimailuz gozatzera.	61
txatar hondakina, katxarroa	— Eta zuk [...] kendu txatar hori hortik.	23
txundigarri miresgarria, harrigarria	...bazirudien lehengo trebetasuna erabat galduta zeukala Osman txundigarriak .	205
ugertu herdoildua, oxidatua	Eskuan lurretik jasotako burdin barra ugertu eta zorrotza zeukan.	221
usadio ohitura	...eta tren-geltokiaren aurrera ailegatu zenean berriro madarikatu zuen mugaz bestaldeko jendeak hain goiz etxeratzeko zeukan usadioa .	97
uxatu aienatu, aldenarazi	Ardurak uxatu nahi eta ezinean, gaur hainbat zereginetan eman du denbora...	86
xaboia eman losintxatan aritu	...eta standaren jabeak xaboia ematen zion behin eta berriro bere nobelen kalitateaz hitz egiterakoan.	61
xarma erakarpena, enkantua	...emakume zein gizon beltz gazte galantak eta zuri zahar edota batere xarma gabeak osatuak.	190
zakarkeria gogor, tonu latzean	— Ba, bai, horixe da nire asmoa —erantzun nion, zakarkeriaz .	147
zantzu seinalea, aztarna	Dena dela, gezurretan ari bazen, horren profesional hutsa zen, ez baitzitzaion igartzen inolako ardura zantzurik musuan.	195
zatar itsusia (zaharkitu, zikina)	Pabilioi zatarren artean kokatuta dago Christ Embassy eliza...	106
zein baino zein bata bestea baino	...eta nire ohiko ogibideak zein baino zein eskasago zihoazen.	10
zeken zikoitza, diru-zale amorratua	...gogoia izan nuen, zeken harengana itzulita, muturra ukabilkada batez apurtzeko, baina ez zitzaidan komeni gauzak gehiago korapilatzea...	72
zerean hor norbait (aipaezina)	— Noren libretan apuntatuko ditugu zerean ematen ditugun minutuak?	118



zizpuru hasperena	—Tira –bota zuen Etxebek, zizpuru behartu batez—. Sinetsiko dizugu eta ahaztuko gara kontu honetaz, oraingo.	19
zoli ozena, indartsua	Irrikaz nengoen maliarraren azalpenak entzuteko, baina nire belarriek jaso zutena beste zerbait izan zen, ahots zoli eta desatsegin bat.	135
zor-kitatze <i>ajuste de cuentas</i>	...hilketa inori ez leporatzea erabaki zuten, mafiakideen arteko zor-kitatzea izan zela argudiatuz.	233
zorri hil-biztu miseriatik irtendako harroa	Miseriari ihes egindako zorri hil-biztu horiek, elkartasun apurtxo bat erakutsi beharrean, gogokoago dute [...] arrazismoa beste norbaiti ordainarazi...	2016
zupaldi zurrupada, felazioa	...larru-jotze eskas bat edo zupaldi bizkor bat.	46
zurrutada tragoa, hurrupa	Zurrutada luze batez lata hustu, bere eskutzarraz txikitu eta postu barruan zegieen paperontzira bota zuen, baita sartu ere.	63